

BARRUKO AGINTARITZARI
NK-1, Brus. 1966-II-28

Agur:
Nere txostenei erantzungo diezutela
jakiñarazi zait Iparraldetik. Beharrik!

Zuek agindu bezela, beraz, erantzun baten zai nago. Ia datorren martxoan lortzen dudan.

Ba dirudi ere, Iparraldekoekin lokarri bat jarri diezutela. Zorionak! Gauzak bide hobe batean jartzen ari dirala dirudi.

Ba da besterik halere.

Atzo jaso dut Argentina'tik hemen ondoan ikusten duzuten gutuna. Onera bere hortan bidaltzea dala pentsatu dut, eta horregatik bidali dizuet. Ez dut kopiarik gorde, beraz.

Ez zait Ameriketatik (eta ez Ameriketatik bakarrik) horrelako kritika bat iristen. Behin eta berriz iritsi zaizkit horrelakoak, eta behin eta berriz ere erantzun diet nik, ahal zan moduan, gauzak hobe jarriko dirala, eta abar.

Ezkerro'ri ere, Bs.B.13 honi ere, berdin erantzun diot: momentu txar bat pasa dugula, laister gauzak hobe jarriko dirala, Zalbide eta gerokoak erortzeak ekarri dituela kalte hauek, eta abar. Hau guzia egia da. Baiña egia da ere gauzak aldatu behar dirala.

Ameriketakoek ez bide dute propagandarik batere jasotzen. Ez "Zutik" bera ere. Hau konpondu egin behar da hunela edo hala. Hiru hillabetez ezer gabe egotea, gehiegi da. Zuek esan nola.

Orain dala zortzi bat hillabete euskeraz ez da EZER agertzen. Hau ez da nere uste huts bat, edo Ezkerro'rena; hau hala da. Nere aldetik saiatuko naiz zerbait bidaltzen euskeraz ere. Baiña euskaltzale berpiztea hasi danean bapatean ETA'koen artean erdaldunak baizik ez egoteak ere, zerbait erakusten du. Euskaldunak hor daude, barruan. Besterik da esatea gaurko ETA-koak euskaldunengandik urrun bizi ditezkeala. Hau, behin eta berriz diot, gauza larria litzake: nahi izanda ala nahi izan gabe, erakutsiko bailuke ETA gaur, berez, "objetivamente", euskaldunetatik AT dagoela. Zergatik? Aztertu egin behar da.

Euskal erreboluzio bat euskeraren KONTRA egitea ez da posible. Edo ETA-k aurrea hartzen du huntan, edo Euskal Herriak alde batera utziko du ETA. Azkeneko Zutik ikusi dut: berriz ere goitik behera erderaz. ONARTU EZIÑA ZAIT! Euskal giharra alde batera uztea, ezin dut onartu; eta ez dut onartuko. Mikel Ezkerro'ren gutunean ageri dan bezela, beste askok ere ez dute onartuko. Hortik putzura goaz!

Agur t'erdi.

Besarkada bat denoi.

Jean

